

Abenduak 1
Hiesaren Aurkako Nazioarteko Eguna

INOIZKAKO BIKOTEEN ARTEKO HARREMANETAN GEHIAGO ERABILTZEN DA PRESERBATIBOA

Ohitura sexualetan aldaketak ekarri ditu hiesak

Hiesak aldaketak ekarri ditu ohitura sexualetan. Hala, lehenengo harreman sexualean nabarmena da preserbatiboa gehiago erabiltzen dela; inoizkako bikoteen arteko harremanetan ere gehiago erabiltzen da.

Gorane Agirre / Bilbo

HIES kasu berriak gazte jendearen artean diagnostikatzen direla nabarmendu zuen atzo Iñaki Azkunak, Eusko Jaurlaritzako Osasun sailburuak. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) epidemia hasi zenetik (1984) diagnostikatu diren hies kasuen ia erdiak (%48 edo 4.000 lagun baino gehiago) 20 eta 29 urte bitarteko gazteen artean izan dira, eta beste horrenbeste 30 eta 39 urte artean.

Datu horiek mundukoekin pareka daitezke: izan ere, infekzio kasu berrien ia erdia —bost kasu minutuko— 24 urte baino gutxiago dituzten artean gertatzen dira.

Testuinguru horretan, Osasun Sailak inkesta bat egin du EAeko 20 eta 39 urte bitarteko 400 lagun artean hiesa agertzeak beren ohitura sexualetan eraginik izan duen jakiteko. Inkestan bi talde banatu dituzte: sexu harremanak hiesaren aroan hasi zituzten 20 urtetik 29ra bitarteko pertsonak, eta 30etik 39ra bitartekoak; alegia, jarduera sexuala hiesaren kanpaina erraldioen aurretik hasi zutenak.

Inkestan bi gai jorratu dituzte: nolakoa izan zen penetraziodun lehenengo harreman sexuala eta azken urteko sexu harremanak nolakoak izan diren.

EAeko 20 eta 29 urteko gazteen %74k noiz edo noiz penetraziodun harreman sexuala izan



Guerrero, Azkuna eta Zulaika, atzo, kanpainaren aurkezpenean.

XOUSE SIMAL

dute, eta lehenengo koitua batez beste 19,1 urterekin izan zuten. Beste taldean (30-39 urtekoak) %99k sexu harremanak izan dituzte, eta estraineko koitua batez beste 19,8 urterekin izan zuten.

Preserbatiboa gehiago erabiltzen da lehenengo koituan • Lehenbiziko koitua harremanean helduen %43k preserbatiboa erabili zuten; gazteen artean, berriz, %73koa da kopuru hori. Igoera hori nabarmendu zuen Azkunak, eta hein handi batean GIBA

kutsatzearen ondorio izan dela adierazi zuen.

Bestalde, gazteen %67k koitua harremanak izan dituzte azken urtean zehar. Haietatik %82k sexu harremanak izan dituzte ohiko bikotearekin, eta %34k inoizkako bikoteekin. Azken talde horretako %77k preserbatiboa erabili dute beti edo ia beti.

Helduagoen taldeak, oster, zertxobait gutxiago erabili du preserbatiboa inoizkako bikoteekin azken urtean; hots, %66. Hau da, talde hori GIBaren kontzientzia hartzen ari da.

Azken urte honetan koitua harremanak izan dituzten 20 eta 29 urteko gazteen %41ek onartu egiten dute hiesa kutsatzeak beren ohitura sexualak baldintzatu dituela; gainontzeko %59k, bestalde, ez daukate pertzepzio hori.

Lehenbiziko koitua harremanetan preserbatiboaren erabilera ugaritzeak eta ohiko sexu harremanetan erabilera hori sendotzeak «bide onetik ari garelako erakusten dute», Iñaki Azkuna Osasun sailburuak adierazi zenez.

Hiesarekin ez ibili jolasean

GAUR ospatzen den Hiesaren Kontrako Nazioarteko Eguna gazteei zuzenduko die Hiesari buruzko Nazio Batuen Egitaraua Bateratuak. Munduan hies kasu berrien ia erdiak — bost minuturo kasu bat— 24 urte baino gutxiagoko gazteak dira eta. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE) joera bera da: diagnostikatutako hies kasuen erdiak 20 eta 29 urte bitarteko gazteak dira.

Hori dela eta, Nazio Batuen Erakundeak Hiesarekin ez ibili jolasean. Babestu zure burua lemapean ospatuko du gaixotasunaren kontrako eguna gaur. Hainbat kirolarik hartuko dute parte kanpainen. Euskal Autonomia Erkidegoan (EAE), Athletic-eko Julen Guerrero, Errealeko Alberto atezaina eta Alaves-eko Antonio Karmona futbolariak hartu dute parte Osasun Sailaren prebentzio kanpainen.

Ekimenak gazteak gaixotasun honetaz ohartaraztea du helburu. Horretarako, aipatutako hiru euskal jokalarien argazkiak agertzen diren 4.000 poster banatuko dituzte Euskal Autonomia Erkidegoako ikastetxe, osasun zentro, ospitale eta farmazietan.

Kanpainaren aurkezpen ekitaldian izan zen Julen Guerrero, eta hiesa prebentziko neurriak hartzearen garrantzia nabarmendu zuen. Haren esanetan, «beti pentsatzen dugu guri halakorik ez zaigula gertatuko, eta ondorioz ez ditugu beharrezko neurriak hartzen. Baina, gertatzen zaizunean damu zara beharrezko neurriak hartu ez izanaz. Zalantza horiek ez izateko, prebentzio neurriak hartu behar dira».

Informazio eguna Miarritzen

Gazteen formakuntza funtsezkotzat jo dute gaixotasunari buru egiteko

Lutxi Fourcade / Baiona

HIESAREN nazioarteko egunaren kariatara, ARSA Akitaniako Giza Bergizarteratzeko elkarteak informazio eguna antolatuko du gaur Miarritzeko sukaldari eskolan. Elkarteko permanentek edo boluntarioek hainbat gai jorratuko dituzte publiko gaztearekin, hala nola prebentzioa, arriskuak, eritasuna eta tratamendua.

ARSA elkarteak sortu zen Miarritzen 1993an. Helburua zuen biziguneak sortzea Euskal Herrian hiesdunentzat. Grasse izeneko etxea ireki zuen Miarritzen, eta harrera egin zion sei pazienteri. «Garai hartan hiesdunek tratamendu handia eta azkarrera behar zuten, eguneroko eri-

zainen laguntzarekin», oroitu zuen Labadie medikuak. Era berean, elkarteak abiatu zituen prebentzio kanpaina zabalak. Lehendabizi, hiesari buruzko informazioa zabaltzen zuen eskolatan eta arrisku gehien duten taldeetan.

Triterapiarekin gaixotasunaren tratamendua aldatu dela eta, biziguneak ez duela gehiago lehengo garrantzia aitortu zuen Labadie. «Paziente gehienak etxean egon daitezke, eta pasa gunea eskaini behar dugu, geroari buruzko proiektuak osatzeko». Esaterako, bergizarteratzeko bideak proposatzeko, elkarteak ireki ditu hainbat tailer.

Alabaina, informazioaren zabaltzea elkartearen ekintza

garrantzitsua bilakatu da. «Nahiz eta tratamendu egokiagoak aurkitu, eritasuna zabaltzen da, eta gaixoen kopurua handitzen da», azpimarratu zuen Labadie. Gazteak informatzeko, elkarteak sare handia osatu du, eta gaur egun ekimenak bultzatzen ditu Ipar Euskal Herriko 25 eskolatan. Udan ere informazioa pasazten du udatiarren artean, euskal kostaldea zeharkatuz autobusez. Dinamika handiagoa bultzatzeko, elkarteak ikasleen arteko lehiaketa abiatuko du gaur. Gazteek beharko dute hiesari buruzko erreportaia bat idatzi, irakasleen laguntzarekin. Elkar-teak sarituko ditu lan onenak, eta ARSA sariak banatuko dira 1999ko maiatzean. X



ARSA elkarteko kideak, atzoko agerraldian.

BOB EDME